

Arartekoaren ebazpena, 2012ko martxoaren 22koa. Horren bidez, Urkabustaizko Udalari gomendatzen zaio eta gogorarazten zaio bere titularrari isilpeko jarduera baten legalizazioa eskatu behar diola eta eragindako auzotarren babeserako kautelazko neurriak hartu behar dituela.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan Urkabustaizko herritar batek aurkeztutako kexa-idazkia jaso genuen. Bertan, bere etxebizitzaren azpian dagoen "Nordiska" tabernaren funtzionamendua dela-eta pairatzen dituen kalte ugariak salatzen zituen. Zehatz-mehatz azaldu zuen establezimenduak egokia ez den eta orain dela urte asko erabili ez den hodi batetik zehar bide publikora isurtzen dituen gasak eta usaina jasanezina direla.
2. Modu berean, nabarmendu zuen lokalaren isolamendu maila eskasaren ondorioz goiko etxebizitzetan jatetxetik zetozen zaratak argi eta garbi entzun zitezkeela: plateren mugimendua, bezeroekin elkarrizketan, etab. Hori gutxi balitz, aintzat hartu behar da, noizean behin kontzertuak egiten zirela, ikuskizun mota hori antolatzeke beharrezkoa den baimena ez eduki arren.
3. Interesduna ziurtatu zuen kexa ugari aurkeztu zituela udalean eta hainbat bilera ere izan dituela alkatearekin, baina oraingoz ez duela aldeko emaitzarik lortu.
4. Hala, korporazioari buruzko informazioa eskatu zen, batez ere, erreferentziazko jarduera zabaldu edo erabilera aldatu ote zen jakiteko. Halaber, jarduera horrek beharrezkoak diren instalazio eta irekiera lizentziak ote zituen galdetu zen eta, erantzuna baiezkota izanez gero, jarduera kalifikatzen duen txostenaren kopia eskatu zen, bai eta aipatutako lizentziak emateko alkatetza dekretuen kopiak ere. Modu berean, lokalak instalazio lizentzian ezarritako baldintzak edo neurri zuzentzaileak betetzen ote zituen galdetu zen. Azkenik, egindako ikuskapen bisitaldien ondoriozko txostenen kopia eta lokaleko zaraten ondoriozko eragozpenengatik burututako neurketa akustikoen kopia ere eskatu zen. Horrez gain eta hala bazegokion, establezimenduko titularraren aurkako zigortzeko espedienteen kopia ere helarazi behar ziguten.
5. Aipatutako udalari eskatutako informazioa bidal zezan hainbat errekerimendu egin ostean eta 2011ko maiatzean korporazioan egon zen aldaketa aintzat hartuta, beste informazio eskaera bat bidali zen. Azkenean, 2012ko otsailaren 17an erantzuna jaso genuen.

6. Udaleko idazkaritzak bidalitako txostenean 1975eko azaroaren 29an Nordiska taberna-jatetxeari emandako lizentziaren kopia gaineratu zen. Bertan, ez zegoen inolako neurri zuzentzailerik.
7. Era berean, alkatearen idazki bat ere zegoen, zera jakinarazi zuena *"isurpenen inguruko txostena egin ahal izateko baliabide tekniko egokirik ez dugunez, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren zerbitzu teknikoan lankidetzaz eskatzeko aukera mahaigaineratu da"*.
8. Aipatutako foru sail horrekin harremanetan jarri ostean, Ingurumen Saileko teknikariak, baliabide tekniko eta giza baliabideak uzteari dagokionez, edozein lanetan laguntzen prest agertu ziren.

Gertakari horiek ikusita, kexa aurkeztu dutenek azaldu dituzten gainontzeko inguruabarrak kontuan hartuta eta horien edukiak aztertu ondoren, hona hemen ondoko

Gogoetak

1. **Jarduera lizentzia** antolamenduko edo segidako traktuko lizentzia da, hau da, sailkatutako jarduerak ingurumeneko araudira egokitzeko tokiko agintarien kontrola ez da lizentzia ematen den unean iraungitzen, baizik eta ezarritako **neurri zuzentzaileak betetzen direla bermatzeko aldiari behingo kontrola eta ikuskapena eskatzen du.**
2. Hasiera batean Nordiska tabernak zegokion lizentzia zeukan arren, Urkabustaizko Udalak jardueraren titularrari legeztatzeke errekerimendua bidali behar izan zion, ekainaren 11ko **171/1985 DEKRETUAREN lehenengo xedapen iragankorrenekin bat eginez. Horren bidez, bizitegietarako ez den hiri-lurzoruan kokatu beharreko jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikatu beharreko arau tekniko orokorrak onartu dira.** Are gehiago, lokalaren funtzionamendua dela-eta auzotarrek behin baino gehiagotan kexak aurkeztu dituztenean euren eskubideak babesteko asmoz.
3. Auzitegi Nagusiaren jurisprudenzian mantendu den irizpidea da ezkututzat jotzea lizentziarik ez daukan jarduera oro. Beraz, udal aginpideak, kautelazko neurri gisa, ixtea erabakitzen badu, hori zuzenbidearekin bat datorrela ezarri du, betiere, jarduera ez bada ingurumen araudian ezarritako prozedurarekin bat eginez legeztatuta. Gaur egun araudi hori ingurumena babesteko 3/98 Legea da. Gauzak horrela, Auzitegi Nagusiaren 1988ko uztailaren 10eko (Ar 4195) 1996ko azaroaren 5eko (1996/8271 EJ) eta 1996ko ekainaren 26ko (1998/6947 EJ) epaiak azpimarratzekoak dira.

Izan ere, ingurumenari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 65. artikulua, kasu honetan aplikatzen denak, jarduera ixteko aukera ematen du, inguruabarrek hala gomendatuko balute eta interesdunari aurretik entzunaldia eginda.

Gainera, lege horren 105. artikulua dio, salbuespen gisa, kautelazko neurriak hartu beharko direla honako kasu hauetan:

“Salbuespenez, eta zigor-espeditentea irekitzeari hasiera eman aurretik, administrazio publikoek zigor izaerarik ez duten ondoko kautelazko neurriak hartu ahal izango dituzte edo lege honetan arau-hauste gisa tipifikatutako edozein ekintzaren ustezko arduradunari neurri horiek harrarazi ahal izango dizkiote:

a) Lanak edo jarduerak bertan behera uztea.

b) Aparatuak, ekipoak edo ibilgailuak prezintatzea.

c) Ingurugiroko kaltea zabal ez dadin zuzentze, segurtasun edo kontrolerako beste edozein neurri.”

4. Dagoeneko ez da beharrezkoa gogoraraztea esku artean ditugun ostalaritzako jardueraren eta antzerakoen funtzionamenduak eragina eduki dezakeela eta eragina daukala lokal horien inguruan bizi diren pertsonen bizi-kalitatean.

Zentzu horretan, udalek bermatu behar dute baimendutako jarduerak instalazio lizentzian horri ezarri zaizkion baldintza murriztaileei eta neurri zuzentzaileei lotzen zaizkiela. Horretarako, beharrezkoa izanez gero, zehapen neurriak hartu ahal izango dira herritarren atsedena eta kalitatezko ingurunea errespetatzen ez dituzten jokabideak edo jarrerak ezabatzeko, indarrean dagoen ordenamendu juridikoak bide horiek eskaintzen baititu herritarren interes orokorra babesteko.

Ikuspuntu horretatik, gogorarazi behar dugu sailkatutako jardueren kontrolean eskumena duten administrazioen jardute ezak, besteak beste, administrazio mailako edo baita zigor mailako erantzukizunak ere eragin ditzakeela.

Adierazitako guztia oinarritzat hartuta eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak – erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako gomendioa egin da:

47/2012 GOMENDIOA, 2012ko martxoaren 26koa, Urkabustaizko Udalari egina.

- Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko 3/98 Legearen 65. artikuluari jarraiki, "Nordiska" tabernaren titularrari jarduera indarrean dagoen ingurumenari buruzko araudiari egokituz legaliza dezan eska diezaion, horretarako gehienez ere sei hilabeteko epea eskainiz.
- Beharrezkoa izanez gero, Ingurumen Saileko foru zerbitzuen laguntzarekin eta legezkatze prozesuak irauten duen bitartean, kautelazko neurriak har daitezten auzotarrei eragindako eragozpenak ahalik eta gehien murrizteko (ikus-entzunezko ekipoak, sukaldea, etab.) euren eskubideak babeste aldera.